



Bizkaiko Foru Aldundiaren jasangarritasun energetikorako ibilbide-orria

4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia
Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa

2021eko maiatza

Edukien aurkibidea

1. Sarrera.....	3
1.1. 4/2019 Legea, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa	4
1.2. 254/2020 Dekretua, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.....	4
2. Dokumentuaren xedea.....	4
2.1. Ibilbide-orria egiteko parte-hartze prozesua	5
3. Bizkaiko Foru Aldundiaren jasangarritasun energetikorako ibilbide-orria	7
1. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila	14
1.1 Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia	15
1.2 Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Atala.....	18
1.3 Ingurumen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntza Bultzatzeko Atala.....	20
2. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila.....	22
2.1 Zerbitzu Korporatiboen Zuzendaritza Nagusia	23
2.2 Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua..	25
2.3 Kontratazio Zerbitzua	34
2.4 Trebakuntza eta Garapen Profesionalerako Atala.....	35
2.5 Ibilgailuen Atala	37
3. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila	41
3.1 Plangintza Zerbitzua	42
3.2 Gainegituren Atala	44
3.3 Lurralde Garapenerako Atala.....	46
4. Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Saila.....	51
4.1 Bidaiarien Garraioa Antolatzeke Zerbitzua	52
5. Ogasun eta Finantza Saila	57
5.1 Ondare Zerbitzua	58
6. Jasangarritasun Energetikorako Batzordea	60

1. Sarrera

Gaur egungo gizartearen erronka nagusietako bat da nagusiki erregai fosiletan oinarritutako **energia-eredu tradizionaletatik eredu iraunkorretara** aldatzea. **Pariseko Akordioak**, zeina estatu mailan berretsi baitzen, nazioarteko konpromiso gisa jasotzen du berotegi-efektuko gasen isurketak murriztea, eta ezartzen du, besteak beste, 2030erako helburu hauek lortu behar direla arlo horretan:

- BEG isurketak % 40 murriztea 1990eko kopuruekin alderatuta
- Energia berriztagarrien sartzeko-kuota % 32koa izatea, gutxienez, energia gordinaren azken kontsumoan
- Efizientzia energetikoan % 32,5eko hobekuntza lortzea kontsumo-joerari dagokionez.

Bestalde, **Europako Itun Berdeak** berriro eutsi dio Europako Batzordeak klimaren eta ingurumenaren erronkei erantzuteko hartutako konpromisoari. Estrategia berri bat da, zeinaren helburua baita Europar Batasuna ekonomia moderno bat duen gizarte bidezkoa eta oparoa izatea, baliabideen erabileran eraginkorra dena, baita lehiakorra ere. Gizarte horretan, 2050ean ez da izango berotegi-efektuko gasen isurketa garbirik eta hazkunde ekonomikoa baliabideen erabileratik bananduta egongo da. Halaber, Itun Berdearen beste helburu bat da EBko kapital naturala zaintzea, mantentzea eta hobetzea, baita herritarren osasuna eta ongizatea babestea ingurumen-arrisku eta -ondorioetatik. Era berean, trantsizio honek justua eta integratzailea izan behar du.

Ildo horretan, **Administrazio Publikoek, energia-politikak arautu, garatu eta/edo gauzatzen dituzten erakundeak** diren heinean, aitzindari izan behar dute energia aurrezteko, efizientzia energetikoa lortzeko eta energia hornitzeko sistema iraunkorretarako trantsizio publiko eta pribatuan. Horretarako, arlo horretako araudia zehazteaz gainera, **jasangarritasun energetikoaren** helburuak lortzeko printzipioak, helmugak eta jarduketak **inplementatu behar dituzte sektore publikoan.**

Hori dela eta, **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)** duela urte batzuk hasi zen energiaren arloko ekintzak gauzatzen, eta bereziki nabarmendu behar da **Euskadiko Energia Estrategia 2030 (3E2030)** tresna, zeinak zenbait helburu ezartzen dituen epe horretarako. Hauek dira helburu horietako batzuk:

- Efizientzia energetikoaren alorreko jarduerak areagotzea kontsumo-sektore guztietan, 1.250.000 petrolio-tona baliokide (ptb) aurrezteko
- Errepide bidezko garraioan ordezkoko energien % 25eko sartzeko-kuota lortzea
- Azken energia-intentsitatea (energia-kontsumoaren eta BPGdren arteko erlazioa) % 33 hobetzea.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoak energiaren arloan izan duen jardueraren emaitza izan da **Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea** onestea. Lege horrek eguneratu egiten ditu erkidego mailako konpromiso energetikoak, eta konpromiso horiek lortzeko neurriak definitzen ditu.

1.1. 4/2019 Legea, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa

Lege hori EAEk ingurumenaren arloan hartutako konpromisoen ondorioz sortu da, eta haren xede nagusia da **jasangarritasun energetikoaren arau-oinarriak** ezartzea Autonomia Erkidegorako.

Oinarri horien helburua da **efizientzia energetikoa lortzeko eta energia aurrezteko neurriak** bultzatzea eta **energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea** sektore publikoan nahiz **pribatuan**. Honela definitzen du legeak bere **aplikazio-eremu subjektiboa**:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, haren mendeko edo hari lotutako erakundeak barne
- **Lurralde historikoetako administrazioak**, haien mendeko edo haiei lotutako erakundeak barne
- Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean definitzen diren moduan; eta udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak
- Euskal Herriko Unibertsitatea, haren mendeko edo hari lotutako erakundeak barne.
- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore pribatua

Horrenbestez, argi ikusten da EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legearen postulatuak zuzenean eragiten diotela **Bizkaiko Foru Aldundiari**, eta, zehazki, arlo hauetan **efizientzia energetikoa lortzeko neurriak hartzea** ekarriko dutela:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren **eraikin eta instalazioetan**
- Bizkaiko Foru Aldundiaren **ibilgailuetan**
- **Planetan, legegintza-proiektuetan eta kontratazio-prozeduretan**
- Bizkaiko Foru Aldundiak **sinatutako kontratu publikoetan**

Aurrekoa kontuan hartuta, eta **EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legean** ezarritako **jarduketak eta helburuak erabat betetzeko**, funtsezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiak **jarduketa-plan** bat izatea, lege horretan **jasangarritasun energetikoa lortzeko finkatutako neurriak nola ezarriko dituen definitu eta programatzeko**.

1.2. 254/2020 Dekretua, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa

Dekretuaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 2/2019 Legea garatzea, lege horretan, besteak beste, EAEko Administrazio Publikoari buruz ezarritako betebeharrei dagokionez. Dekretuaren aplikazio-eremu subjektiboa 4/2019 Legearen 2. artikuluan ezarritakoa da.

Dekretuan jasotako printzipio eta zehaztapenen artean, hauek nabarmendu behar dira:

- Euskal Administrazio Publikoen eredugarritasuna.
- Euskal Administrazio Publikoen jarduteko printzipioak.
- Inbentarioa.

- Energia-kontsumoen kontrola.
- Energia-jarduketako unitateak zehaztea.
- Energia-auditoretzak
- Energia-aurrezpenaren ehunekoak.
- Eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria.
- Energia-jarduketen plan orokorra
- Energia-jarduketen plana
- Energia-jarduketen berariazko planak.
- Prestakuntza eta sentsibilizazioa.
- Ordezko erregaiak erretzen dituzten ibilgailuak.

Bestalde, 21. artikuluan honako hau jasotzen da: *“Energia-jarduketen planak lehen energia-jarduketen plan orokorra izan behar du sorburu, eta bertan jasoko dira administrazio publiko bakoitzaren abiapuntuko egoeraren diagnostikoa eta otsailaren 21eko 4/2019 Legearen helburuak lortzeko estrategiak”*.

2. Dokumentuaren xedea

Ibilbide-orri honen helburu nagusia da, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legean **jasangarritasun eta efizientzia energetikoaren arloan ezarritako eskakizunak eta helburuak betetzeko**, Bizkaiko Foru Aldundiak 2021-2030 aldian gauzatu behar dituen **jarduketak identifikatzea**.

Ildo horretan, identifikatutako **jarduketen lehentasun-maila** zehazteko **irizpideak** finkatuko ditu ibilbide-orri honek, eta, hala, jarduketen **plangintzarako** erreferentzia ezarriko da.

2.1. Ibilbide-orria egiteko parte-hartze prozesua

Ibilbide-orri hau parte hartze prozesu baten emaitza da, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren barruan EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen eraginpean dauden sail, zuzendaritza, zerbitzu eta atal guztiek hartu dute parte. Hauek dira¹:

¹ Esandakoez gainera, Bizkaiko Garraio Partzuergoak ere parte hartu du ibilbide-orria egiteko prozesuan.

1. Taula. Parte-hartze prozesuan izan diren Bizkaiko Foru Aldundiko sailak, zuzendaritzak, zerbitzuak eta atalak

SAILA	Zuzendaritza	Zerbitzua	Atala
Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Araubide Juridikoa eta Funtzio Publikoa	Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzua	Trebakuntza eta Garapen Profesionalerako Atala
	Zerbitzu Korporatiboak	Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua	Mantentze Lanak Bideratzeko Atala
		Kontratazio Zerbitzua	Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Zerbitzu Orokorrak
Azpiegiturak eta Lurralde Garapena	Bide-sarearen Kudeaketa	Kontserbazio Zerbitzua	Gainegituren Atala
	Lurralde Garapena	Plangintza Zerbitzua	Lurralde Antolamendurako Atala
Ogasuna eta Finantzak	Finantzak, Aurrekontua eta Ondarea	Ondare Zerbitzua	
Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Ingurumena	Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko Zerbitzua	Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Atala
			Ingurumen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntza Bultzatzeko Atala
Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria		Zerbitzu Orokorraren Zerbitzua	
	Garraioak	Garraioak Antolatzeko Zerbitzua	
	Mugikortasun Jasangarria	Bidaiarien Garraioa Antolatzeko Zerbitzua	

3. Bizkaiko Foru Aldundiaren jasangarritasun energetikorako ibilbide-orria

Jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiko organo bakoitzak EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legean ezarritako arau-betekizunak betetzeko egin behar dituen jarduketak azaltzen dira:

2. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila

zk.	Jarduketa	2020		2021		2022		2023	
		1. Seih.	2. Seih.	1. Seih.	2. Seih.	1. Seih.	2. Seih.	1. Seih.	2. Seih.
2.1	Zerbitzu Korporatiboen Zuzendaritza Nagusia								
2.1.1	Jasangarritasun Energetikorako Batzordea sortzea								
2.2	Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua								
2.2.1	Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinen ziurtapen energetikorako zerbitzuak kontratatzeko lizitazioa								
2.2.2	Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinen artean B kategoriatik beherako kalifikazioa dutenen %40aren kalifikazio energetikoa hobetzeko (B kategoria edo goragokoa lortu arte) egokitzapen-lanak egiteko kontratuaren lizitazioa eta adjudikazioa								
2.2.3	Bizkaiko Foru Aldundiaren energia elektriko hornitzeko esparru-akordioaren lizitazioa eta adjudikazioa								
2.2.4	Energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko irizpideak sartzea instalazioak eta ekipamenduak berritzeko prozesuetan								
2.2.5	Energia-kontsumo ia nuluko irizpideak sartzea Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikin berriak eraikitzeko edo orain dituen eraikinetan erreforma integrala egiteko lizitazioetan								
2.2.6	Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak eta bizikletak erabiltzeko eta aparkatzeko lekuak jartzeko betebeharrak sartzea eraikin berriak eraikitzeko lizitazio-prozesuetan								
2.2.7	Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinetan energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak jartzeko zerbitzuak kontratatzeko lizitazioa								
2.3	Kontratazio Zerbitzua								
2.3.1	Bizkaiko Foru Aldundiaren lizitazioetan energia berriztagarriak balioesteko eta sustatzeko apartatuak sartzea								
2.4	Trebakuntza eta Garapen Profesionalerako Atala								
2.4.1	Energia-aurrezpena eta efizientzia energetikoa areagotzeko teknikei eta arlo horren kudeaketari buruzko prestakuntza-ikastaroak sartzea Bizkaiko Foru Aldundiaren prestakuntza-plan orokorrean.								
2.5	Ibilgailuen Atala								
2.5.1	Bizkaiko Foru Aldundiaren ibilgailuen inbentarioa egitea								
2.5.2	Energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko irizpideak sartzea flota eta ibilgailuak berritzeko prozesuetan								
2.5.3	Ordezko erregaiak erabiltzen dituzten ibilgailuak eskuratzeko lizitazioa eta adjudikazioa								
2.5.4	Petrolioaren deribatuen erregaien bidez higiarazitako gutxieneko ibilgailu-kopuru bat behar duten jarduerak identifikatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak egin dituen ekintzak aztertzea	4/2019 Legea garatzeko xedapenak ematen diren dataren arabera		4/2019 Legea garatzeko xedapenak ematen diren dataren arabera		4/2019 Legea garatzeko xedapenak ematen diren dataren arabera		4/2019 Legea garatzeko xedapenak ematen diren dataren arabera	

3. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila

		2020		2021		2022		2023	
zk.	Jarduketa	1. Seih.	2. Seih.	1. Seih.	2. Seih.	1. Seih.	2. Seih.	1. Seih.	2. Seih.
3.1	Plangintza Zerbitzua								
3.1.1	Lurraldeko Errepideen Plan Sektorialean jasagarritasunari buruzko azterketa bat sartzea								
3.1.2	Lurraldeko Bizikleta-bideen Plan Sektorialean jasagarritasunari buruzko azterketa bat sartzea								
3.2	Gainegituren Atala								
3.2.1	Gainegituren Atalak gaur egun duen laguntza teknikorako kontratuaren jarraipena egitea eta kontratua berritzea								
3.3	Lurralde Garapenerako Atala								
3.3.1	Bilbao Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialean jasagarritasun energetikoari buruzko azterketa bat sartzea								
3.3.2	Igorreko Lurralde Plan Partzialean jasagarritasun energetikoari buruzko azterketa bat sartzea								
3.3.3	Durangoko Lurralde Plan Partzialean jasagarritasun energetikoari buruzko azterketa bat sartzea								
3.3.4	Mungia Lurralde Plan Partzialean jasagarritasun energetikoari buruzko azterketa bat sartzea								
3.3.5	Gernika-Markinako Lurralde Plan Partzialean jasagarritasun energetikoari buruzko azterketa bat sartzea								

4. Garraioak eta Mugikortasun Jasagarria Sustatzeko Saila

		2020		2021		2022		2023	
zk.	Jarduketa	1. Seih.	2. Seih.	1. Seih.	2. Seih.	1. Seih.	2. Seih.	1. Seih.	2. Seih.
4.1	Bidaiarien Garraioa Antolatze Zerbitzua								
4.1.1	Bizkaibus zerbitzua emateko emakidaren lizitazio-prozesuetan, zerbitzu hori ordeko erregaia erabiltzen dituzten ibilgailuen bidez emateko eskakizuna sartzea								
4.1.2	Bizkaiko Foru Aldundiko langileek garraio publikoa edo mugikortasun partekatua erabiltzea sustatzeko neurriak diseinatu eta ezartzea	Jasagarritasun Energetikorako Batzordeak zehaztu behar du		Jasagarritasun Energetikorako Batzordeak zehaztu behar du		Jasagarritasun Energetikorako Batzordeak zehaztu behar du		Jasagarritasun Energetikorako Batzordeak zehaztu behar du	
4.1.3	Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritzak eskatuta Bizkaiko Garraio Partzuergoak egindako Bizkaiko 2020-2030erako Mugikortasun Plana onestea	Jasagarritasun Energetikorako Batzordeak zehaztu behar du		Jasagarritasun Energetikorako Batzordeak zehaztu behar du		Jasagarritasun Energetikorako Batzordeak zehaztu behar du		Jasagarritasun Energetikorako Batzordeak zehaztu behar du	

1. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila

1.1 Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia

1.1.1 jarduketa

Jasangarritasun Energetikorako Batzordea sortzea

Azalpena

- Batzordean parte hartu ahal duten eragile instituzionalak identifikatzea. Batzorde hau teknikoak izango da funtsean, eta Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioek osatuko dute. Hasteko, proposatzen da foro honetan organo hauetako ordezkari bana egotea:

- o Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko Zerbitzua
- o Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua
- o Kontratazio Zerbitzua
- o Ibilgailuen Atala
- o Bidaiarien Garraioa Antolatzekeo Zerbitzua
- o Plangintza Zerbitzua
- o Gainegituren Atala
- o Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzua
- o Ondare Zerbitzua

Batzorde hau EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen ondorioz egin beharreko lanak egiteaz eta lanon jarraipen teknikoak egiteaz arduratuko da.

Batzordeak informazioa emango dio Koordinazio Batzordeari. Azken honetan arduradun organiko hauek egotea proposatzen da:

- o Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia
- o Zerbitzu Korporatiboen Zuzendaritza Nagusia
- o Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia

Koordinazio Batzordeak eskatuta, arduradun organiko hauek parte hartu ahal izango dute:

- o Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetearen unitatea
- o Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak
- o Garraioen Zuzendaritza Nagusiak
- o Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak
- o Bide-sarea Kudeatzeko Zuzendaritza Nagusiak
- o Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak
- o Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko erakundeetako zuzendaritzek, egokituz jotzen denean.

- Batzordean parte hartzeko identifikatu diren eragileak gonbidatzea
- Batzordea eratzea, eta haren barne-araubideko erregelamendua eta funtzionatzeko dinamika definitzea
- Batzordea martxan jartzea

Arlo arduraduna

Arlo laguntzailea

- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia
- Zerbitzu Korporatiboen Zuzendaritza Nagusia

Gauzatzeko aurrez ikusitako data

2021eko ekaina

Batzordean parte hartu ahal duten eragile instituzionalak identifikatzea

Batzordean parte hartzeko identifikatu diren eragileak gonbidatzea

1.1.1 jarduketa	Jasangarritasun Energetikorako Batzordea sortzea
	Batzordea eratzea eta haren barne-araubideko erregelamendua definitzea
	Batzordea martxan jartzea
Barneko jarduketa/ kanpoan egin beharrekoa	Barneko jarduketa
Baliabide ekonomikoak	0 €
Adierazleak	–
Oharrak	–
4/2019 Legea, art.	9. artikulua

1.1.2 jarduketa

Energia-jarduketen plan orokorra egitea

Azalpena

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Energia Jarduketen Plan Orokorra egiteko prozesuan parte hartuko duten eragile instituzionalak identifikatzea.
- Lantalde bat eratuko da, funtsean teknikoa izango dena, eta Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioek osatuko dute. Hasteko, eta Jasangarritasun Energetikorako Batzordeko ordezkariak kontuan hartuta, proposatzen da foro honetan administrazio-unitate hauetako ordezkari bana egotea:
 - o Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko Zerbitzua
 - o Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua
 - o Kontratazio Zerbitzua
 - o Ibilgailuen Atala
 - o Bidaiarien Garraioa Antolatze Zerbitzua
 - o Plangintza Zerbitzua
 - o Gainegituren Atala
 - o Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzua
 - o Ondare Zerbitzua
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Energia Jarduketen Plan Orokorra egitea. Abiapuntuko egoeraren diagnostikoa eta 4/2019 Legearen helburuak lortzeko estrategiak jasoko dira.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Energia Jarduketen Plan Orokorra aurkeztea Zuzendaritza Batzordeari eta Jasangarritasun Energetikorako Batzordeari.

Arlo arduraduna**Arlo laguntzailea**

- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia

- Identifikatutako zerbitzuak

Gauzatzeko aurrez ikusitako data

2022ko ekaina

Lantaldean parte hartu ahal duten eragile instituzionalak identifikatzea

Energia Jarduketen Plan Orokorra egitea

Energia Jarduketen Plan Orokorra aurkeztea

**Barneko jarduketa/
kanpoan egin
beharrekoa**

Barneko jarduketa, kanpoko laguntza teknikoarekin

**Baliabide
ekonomikoak**

18.000 €

Adierazleak

-

Oharrak

-

4/2019 Legea, art.

14. artikulua

**254/2020
Dekretua, art.**

21. artikulua

1.2 Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Atala

1.2.1 jarduketa	Lurraldeko Errepideen Plan Sektorialaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa	
Azalpena		
<ul style="list-style-type: none"> – Lurraldeko Errepideen Plan Sektoriala egiteko prozesuan zehar, jarduera hauek egin beharko ditu Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Atalak: <ul style="list-style-type: none"> a) Plangintza Zerbitzuarentzako erabakia, irismen-dokumentuaren bidez amaituko den ingurumen-azterketa estrategikoak izan behar dituen edukiari, hedadurari, xehetasun-mailari eta zehaztapen-graduari dagokienez. a) Ingurumen-adierazpen estrategikoarekin amaituko den ingurumen-ebaluazio estrategikoa 		
Arlo arduraduna	Arlo laguntzailea	
– Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Atala		
Gauzatzeko aurrez ikusitako data		
2021eko maiatza	Irismen-dokumentua egitea	
Azpiegituretarako Sailak eskatzen duenean	Ingurumen-adierazpen estrategikoa egitea	
Barneko jarduketa/ kanpoan egin beharrekoa	Barneko jarduketa	
Baliabide ekonomikoak	0€	
Adierazleak	–	
Oharrak	–	
4/2019 Legea, art.	7. artikulua	

1.2.2 jarduketa	Lurraldeko Bizikleta-bideen Plan Sektorialaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa	
Azalpena		
<ul style="list-style-type: none"> – Lurraldeko Bizikleta-bideen Plan Sektoriala egiteko prozesuan zehar, jarduera hauek egin beharko ditu Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Atalak : <ul style="list-style-type: none"> a) Plangintza Zerbitzuarentzako erabakia, irismen-dokumentuaren bidez amaituko den ingurumen-azterketa estrategikoak izan behar dituen edukiari, hedaturari, xehetasun-mailari eta zehaztapen-graduari dagokienez. b) Ingurumen-adierazpen estrategikoarekin amaituko den ingurumen-ebaluazio estrategikoa 		
Arlo arduraduna	Arlo laguntzailea	
– Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Atala		
Gauzatzeko aurrez ikusitako data		
2019an egin zen	Irismen-dokumentua egitea	
Azpiegituretarako Sailak eskatzen duenean	Ingurumen-adierazpen estrategikoa egitea	
Barneko jarduketa/ kanpoan egin beharrekoa	Barneko jarduketa	
Baliabide ekonomikoak	0 €	
Adierazleak	–	
Oharrak	–	
4/2019 Legea, art.	7. artikulua	

1.3 Ingurumen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntza Bultzatzeko Atala

1.3.1 jarduketa	Energia-aurrezpena eta efizientzia energetikoa areagotzeko teknikei buruzko prestakuntza-ikastaroak diseinatzea, Bizkaiko Foru Aldundiko langileentzat.	
Azalpena		
<p>– EEERekin (Energiaren Euskal Erakundea) elkarlanean aritzea, Bizkaiko Foru Aldundiko langileentzat energia-aurrezpena eta efizientzia energetikoa areagotzeko teknikei buruzko prestakuntza-ikastaroak diseinatzeko. Hauek sartzen dira:</p> <p>a) Zeharkako prestakuntza EAeko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak eragiten dien zerbitzuburu eta atalburuentzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ «EAeko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen printzipioak, helburuak eta tresnak» <p>b) Energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko teknikei eta energia berriztagarriei buruzko prestakuntza sektorial teknikoa energia kontsumitzen duten instalazioak erosteaz, mantentzeaz eta erabiltzeaz arduratzen diren kudeatzaile eta teknikarientzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ «EAeko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legean jasotako energia-jarduketan plana, jasangarritasun energetikoko neurriak ezartzeko plana eta mugikortasun-plana» ▪ «Lurraldearen antolamendua, hirigintza-plangintza eta garraio-azpiegiturak: EAeko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legean jasotako jasangarritasun energetikoari buruzko azterketa, mugikortasun-azterketa eta kanpoko argiteria publikoaren azterketa» ▪ «Erosketa eta kontratazio berdea eta jasangarritasun energetikoa» ▪ «Eraikinen diseinua, kudeaketa eta mantentze-lanak EAeko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen arabera» ▪ «Bide-sistemaren kudeaketa EAeko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen arabera: argiteria publikoa, tunelak eta instalazioak» ▪ «Gidatze jasangarria eta ordezeko erregaien erabilera» <p>c) Irakasleak proposatzea prestakuntza-ikastaroa emateko</p>		
Arlo arduraduna	Arlo laguntzailea	
– Ingurumen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntza Bultzatzeko Atala	<p>– EEER (Energiaren Euskal Erakundea)</p> <p>– Ihobe</p> <p>– Jasangarritasun Energetikorako Batzordea</p>	
Gauzatzeko aurrez ikusitako data		
2021eko iraila	EEERekin (Energiaren Euskal Erakundea) elkarlanean aritzea, Bizkaiko Foru Aldundiko langileentzat energia-aurrezpena eta efizientzia energetikoa areagotzeko teknikei buruzko prestakuntza-ikastaroak diseinatzeko.	
Barneko jarduketa/ kanpoan egin beharrekoa	Barneko jarduketa	
Baliabide ekonomikoak	0 €	

1.3.1 jarduketa	Energia-aurrezpena eta efizientzia energetikoa areagotzeko teknikei buruzko prestakuntza-ikastaroak diseinatzea, Bizkaiko Foru Aldundiko langileentzat.
Adierazleak	–
Oharrak	Prestakuntza-ikastaroa emateko irakasleak proposatzeari dagokionez, interesgarritzat jotzen da EEEri (Energiaren Euskal Erakundea) atxikitako langileak izatea
4/2019 Legea, art.	27. eta 51. artikulua

2. Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saila

2.1 Zerbitzu Korporatiboen Zuzendaritza Nagusia

2.1.1 jarduketa

Jasangarritasun Energetikorako Batzordea sortzea

Azalpena

- Batzordean parte hartu ahal duten eragile instituzionalak identifikatzea. Batzorde hau teknikoak izango da funtsean, eta Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioek osatuko dute. Hasteko, proposatzen da foro honetan organo hauetako ordezkari bana egotea:

- o Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko Zerbitzua
- o Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua
- o Kontratazio Zerbitzua
- o Ibilgailuen Atala
- o Bidaiarien Garraioa Antolatzeko Zerbitzua
- o Plangintza Zerbitzua
- o Gai negituren Atala
- o Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzua
- o Ondare Zerbitzua

Batzorde hau EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen ondorioz egin beharreko lanak egiteaz eta lanon jarraipen teknikoak egiteaz arduratuko da.

Batzordeak informazioa emango dio Koordinazio Batzordeari. Azken honetan arduradun organiko hauek egotea proposatzen da:

- o Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia
- o Zerbitzu Korporatiboen Zuzendaritza Nagusia
- o Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia

Koordinazio Batzordeak eskatuta, arduradun organiko hauek parte hartu ahal izango dute:

- o Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetearen unitatea
- o Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak
- o Garraioen Zuzendaritza Nagusiak
- o Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak
- o Bide-sarea Kudeatzeko Zuzendaritza Nagusiak
- o Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak
- o Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko erakundeetako zuzendaritzek, egokitzen jotzen denean.

- Batzordean parte hartzeko identifikatu diren eragileak gonbidatzea
- Batzordea eratzea, eta haren barne-araubideko erregelamendua eta funtzionatzeko dinamika definitzea
- Batzordea martxan jartzea

Arlo arduraduna

Arlo laguntzailea

- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia
- Zerbitzu Korporatiboen Zuzendaritza Nagusia

Gauzatzeko aurrez ikusitako data

2021eko ekaina

Batzordean parte hartu ahal duten eragile instituzionalak identifikatzea

Batzordean parte hartzeko identifikatu diren eragileak gonbidatzea

2.1.1 jarduketa	Jasangarritasun Energetikorako Batzordea sortzea
	Batzordea eratzea eta haren barne-araubideko erregelamendua definitzea
	Batzordea martxan jartzea
Barneko jarduketa/ kanpoan egin beharrekoa	Barneko jarduketa
Baliabide ekonomikoak	0 €
Adierazleak	–
Oharrak	–
4/2019 Legea, art.	9. artikulua

2.2 Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua

2.2.1 jarduketa	Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinen ziurtapen energetikorako zerbitzuak kontratatzekeko lizitazioa	
Azalpena		
<ul style="list-style-type: none"> – Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinen ziurtapen energetikorako zerbitzuak kontratatzekeko lizitazioa. Zerbitzu hauek eman beharko dira: <ul style="list-style-type: none"> a) Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinen ziurtapen energetikoa b) Auditoretza energetikoak 70 kW baino gehiagoko potentzia termikoa duten eraikinetarako c) Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinak Euskadiko Efizientzia Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatzeko zerbitzua d) Ziurtapen energetikoa duten eraikinetan eraikinen efizientzia energetikoari buruzko etiketak ikusgai jartzeko zerbitzuak 		
Arlo arduraduna	Arlo laguntzailea	
<ul style="list-style-type: none"> – Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua 	<ul style="list-style-type: none"> – Kontratazio Zerbitzua – Jasangarritasun Energetikorako Batzordea 	
Gauzatzeko aurrez ikusitako data		
2019ko urria	Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinen ziurtapen energetikorako zerbitzuak kontratatzekeko lizitazioa	
2020ko abendua	Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinen ziurtapen energetikoa	
2021eko abendua	Auditoretza energetikoak 70 kW baino gehiagoko potentzia termikoa duten eraikinetarako	
2021eko martxoa	Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinak Euskadiko Efizientzia Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatzeko zerbitzuak	
2021eko apirila	Ziurtapen energetikoa duten eraikinetan eraikinen efizientzia energetikoari buruzko etiketak ikusgai jartzeko zerbitzuak	
Barneko jarduketa/ kanpoan egin beharrekoa	Kanpoan egin beharrekoa	
Baliabide ekonomikoak	53.000 €, gutxi gorabehera	
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> – B kategoriako edo hortik gorako kategoriako ziurtapen energetikoa duten eraikinen ehunekoa – Btik beherako kategoriako ziurtapen energetikoa duten eraikinen ehunekoa 	
Oharrak	–	

2.2.1 jarduketa

Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinen ziurtapen energetikorako zerbitzuak kontratatzeke lizitazioa

Azalpena

- Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinen ziurtapen energetikorako zerbitzuak kontratatzeke lizitazioa. Zerbitzu hauek eman beharko dira:
 - a) Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinen ziurtapen energetikoa
 - b) Auditoretza energetikoak 70 kW baino gehiagoko potentzia termikoa duten eraikinetarako
 - c) Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinak Euskadiko Efizientzia Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatzeko zerbitzua
 - d) Ziurtapen energetikoa duten eraikinetan eraikinen efizientzia energetikoari buruzko etiketak ikusgai jartzeko zerbitzuak

4/2019 Legea, art.

11., 19. eta 28. artikulak

2.2.2 jarduketa	Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinen artean B kategoriatik beherako kalifikazioa dutenen % 40aren kalifikazio energetikoa hobetzeko (B kategoria edo goragokoa lortu arte) egokitzapen-lanak egiteko kontratuaren lizitazioa eta adjudikazioa	
Azalpena		
<ul style="list-style-type: none"> – Bizkaiko Foru Aldundiaren eraikin eta instalazioen inbentarioa kontuan hartuta: <ul style="list-style-type: none"> a) Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinetatik Btik beherako kalifikazio energetikoa dutenak identifikatzea. b) Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinen artean B kategoriatik beherako kalifikazioa dutenen % 40aren kalifikazio energetikoa hobetzeko (B kategoria edo goragokoa lortu arte) egokitzapen-lanak egiteko kontratuaren lizitazioa eta adjudikazioa 		
Arlo arduraduna	Arlo laguntzailea	
<ul style="list-style-type: none"> – Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua 	<ul style="list-style-type: none"> – Kontratazio Zerbitzua – Jasangarritasun Energetikorako Batzordea 	
Gauzatzeko aurrez ikusitako data		
2020ko apirila	Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinetatik Btik beherako kalifikazio energetikoa dutenak identifikatzea.	
Jasangarritasun Energetikorako Batzordeak zehaztu behar du	Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinen artean B kategoriatik beherako kalifikazioa dutenen % 40aren kalifikazio energetikoa hobetzeko (B kategoria edo goragokoa lortu arte) egokitzapen-lanak egiteko kontratuaren lizitazioa eta adjudikazioa	
Barneko jarduketa/ kanpoan egin beharrekoa	Kanpoan egin beharrekoa	
Baliabide ekonomikoak	Kontratu hau lizitatzeko eta adjudikatzeko behar diren baliabide ekonomikoak Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinetatik Btik beherako kalifikazio energetikoa duten eraikinen kopuruaren eta ezaugarrien menpe daude.	
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> – Kontratu lizitatu eta adjudikatu baino lehen Btik beherako kategoriako ziurtapen energetikoa duten eraikinen ehunekoa – Kontratu gauzatu ondoren Btik beherako kategoriako ziurtapen energetikoa duten eraikinen ehunekoa 	
Oharrak	–	
4/2019 Legea, art.	19. artikulua	

2.2.3 jarduketa	Bizkaiko Foru Aldundiaren energia elektrikoa hornitzeko esparru-akordioaren lizitazioa eta adjudikazioa	
Azalpena		
<ul style="list-style-type: none"> - Bizkaiko Foru Aldundiaren energia elektrikoa hornitzeko 2020-2021erako esparru-akordioaren lizitazioa eta adjudikazioa. Besteak beste, zerbitzu hauek ditu: <ul style="list-style-type: none"> a) Bizkaiko Foru Aldundiaren energia elektrikoaren hornidura kontratatzea. Energiaren % 100 jatorri berriztagarrikoa izan behar da. b) Energia elektrikoaren kontagailuak jartzea Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikin eta instalazioetan c) Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikin bakoitzean, energiaren kontsumoaren urteko kontrola egitea, hilabetea erreferentziatzen hartuta. Halaber, kontsumo horren kostua kontrolatzea. - Hala badagokio, kontratuan aurrez ikusitako urtebeteko bi luzapenak burutzea. - Bizkaiko Foru Aldundiaren energia elektrikoa hornitzeko esparru-akordioa lizitatzea eta adjudikatzea 		
Arlo arduraduna	Arlo laguntzailea	
- Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratazio Zerbitzua - Jasangarritasun Energetikorako Batzordea 	
Gauzatzeko aurrez ikusitako data		
2019ko abendua	Bizkaiko Foru Aldundiaren energia elektrikoa hornitzeko 2020-2021erako esparru-akordioa lizitatzea eta adjudikatzea	
2020ko urtarrila-otsaila	Energia elektrikoaren kontagailuak jartzea Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikin eta instalazioetan	
Urtarrilero, 2021etik 2030era	Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikin bakoitzean, energiaren kontsumoaren urteko kontrola egitea, hilabetea erreferentziatzen hartuta. Halaber, kontsumo horren kostua kontrolatzea.	
2021eko abendua	Esparru-akordioan ezarritako urtebeteko lehen luzapena burutzea 2022rako	
2023ko uztaila-abendua	Bizkaiko Foru Aldundiaren energia elektrikoa hornitzeko 2023-2024rako esparru-akordio berria lizitatzea eta adjudikatzea	
2025eko abendua	Esparru-akordio berrian ezarritako urtebeteko lehen luzapena burutzea	
2026ko abendua	Esparru-akordio berrian ezarritako urtebeteko bigarren luzapena burutzea	
2023ko uztaila-abendua	Bizkaiko Foru Aldundiaren energia elektrikoa hornitzeko esparru-akordio berria lizitatzea eta adjudikatzea	
2029ko abendua	Esparru-akordio berrian ezarritako urtebeteko lehen luzapena burutzea	
2030eko abendua	Esparru-akordio berrian ezarritako urtebeteko bigarren luzapena burutzea	
Barneko jarduketa/ kanpoan egin beharrekoa	Kanpoan egin beharrekoa	

2.2.3 jarduketa	Bizkaiko Foru Aldundiaren energia elektrikoa hornitzeko esparru-akordioaren lizitazioa eta adjudikazioa
Baliabide ekonomikoak	Energia elektrikoa hornitzeko 2020-2021erako esparru-akordioaren urteko aurrekontu orokorra 5.000.000 euro dela zenbatetsi da.
Adierazleak	–
Oharrak	–
4/2019 Legea, art.	12., 17. eta 21. artikulua

2.2.4 jarduketa	Energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko irizpideak sartzea instalazioak eta ekipamenduak berritzeko prozesuetan	
Azalpena		
<ul style="list-style-type: none"> – Energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko irizpideak sartzea instalazioak eta ekipamenduak berritzeko prozesuetan, besteak beste, irizpide hauek aintzat hartuta: <ul style="list-style-type: none"> a) Efizientzia mailarik handienekoak izatea, aintzat hartuta kostuen arloko ondorioak, bideragarritasun ekonomikoa eta egokitzapen teknikoa, bai eta behar besteko lehia egotea ere. Bereziki aplikatuko da hauek erosten direnean: klimatizazio-ekipoak, etxeko ur berokoak, ekipo ofimatikoak eta argi-ekipoak. b) Zerbitzu-kontratuak adjudikatzeko lizitazioetan balioestea zerbitzuaren hornitzaileek, kontratu horien xedeetarako, aurreko apartatueta adierazitako baldintzak betetzen dituzten produktuak erabiltzen dituztela zerbitzuak emateko 		
Arlo arduraduna	Arlo laguntzailea	
<ul style="list-style-type: none"> – Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua 	<ul style="list-style-type: none"> – Jasangarritasun Energetikorako Batzordea – Kontratazio Zerbitzua 	
Gauzatzeko aurrez ikusitako data		
Errepikaria (lizitazio-prozesu bakoitzean)	Energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko irizpideak sartzea instalazioak eta ekipamenduak berritzeko prozesuetan	
Barneko jarduketa/ kanpoan egin beharrekoa	Barneko jarduketa	
Baliabide ekonomikoak	0 €	
Adierazleak	–	
Oharrak	<ul style="list-style-type: none"> – Jasangarritasun Energetikorako Batzordeak energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko irizpide bateratuak ezarri beharko ditu instalazio eta ekipamenduak berritzeko prozesuetan ezartzeko. – Hala ere, instalazio eta ekipamenduak berritzeko prozesuetan, material elektrikoa, elektronikoa eta etxetresna elektrikoak hornitzeko esparru-akordioak bezala, Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzuak jada jasota ditu energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko irizpide hauek, besteak beste: <ul style="list-style-type: none"> a) Domotikako tresnen erabilera sustatzea b) Enpresa adjudikaziodunak zerbitzua emateko erabiliko dituen ibilgailuak baloratzea (ibilgailu bakoitzaren ingurumen-bereizgarria eta matrikulazio-urtea baloratzea) c) Paperik ez sortzea sustatzea d) Produktu kontzentratuak eta bilgarrien erabileraren murrizketa sustatzea e) Ziurtagiri ekologikoa duten produktuak sustatzea 	
4/2019 Legea, art.	18. artikulua	

2.2.5 jarduketa	Energia-kontsumo ia nuluko irizpideak sartzea Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikin berriak eraikitzeke edo orain dituen eraikinetan erreforma integrala egiteko lizitazioetan	
Azalpena		
<p>– Energia-kontsumo ia nuluko irizpideak sartzea Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikin berriak eraikitzeke edo orain dituen eraikinetan erreforma integrala egiteko lizitazioetan. Eraikin horiek ezaugarri hauek dituzte:</p> <p>a) Efizientzia energetiko handia duen eraikina, Eraikinen efizientzia energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/EB Zuzentarauan ezarritakoaren arabera.</p> <p>b) Eraikin horiek behar duten energia ia nulu edo gutxi hori, neurri handi batean, iturri berriztagarrietatik ateratako energiaren bidez lortu beharko litzateke, <i>in situ</i> edo inguruan ekoizitako iturri berriztagarrietatik ateratako energia ere barne dela.</p>		
Arlo arduraduna	Arlo laguntzailea	
– Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua	<p>– Kontratazio Zerbitzua</p> <p>– Jasangarritasun Energetikorako Batzordea</p>	
Gauzatzeko aurrez ikusitako data		
Errepikaria (lizitazio-prozesu bakoitzean)	Energia-kontsumo ia nuluko irizpideak sartzea Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikin berriak eraikitzeke edo orain dituen eraikinetan erreforma integrala egiteko lizitazioetan	
Barneko jarduketa/ kanpoan egin beharrekoa	Barneko jarduketa	
Baliabide ekonomikoak	0 €	
Adierazleak	–	
Oharrak	<p>Betebehar hori betetzeaz salbuetsi ahal izango da kasu hauetan, betiere kalifikazio energetikoa hobetzea bideraezina dela justifikatzen bada teknikoki:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Eraikin eta monumentu ofizialki babestuak badira, kultura-ondare aitortutako ingurune baten zati direlako edo balio arkitektonikoa edo historikoa dutelako. – Bi urtean edo denbora laburragoan erabiltzekoak diren behin-behineko eraikuntzak badira. – Industria- eta nekazaritza-eraikinak edo haien zatiak, baldin eta lantegi modura edo industria- eta nekazaritza-prozesuetarako erabiltzen badira eta ez bizitegi gisa. – Isolatuta dauden eraikinak edo eraikin-zatiak, baldin eta 50 metro koadro baino gutxiagoko azalera erabilgarria badute. – Urtean lau hilabete baino gutxiagoan edo urtean zehar denbora mugatu batean erabiltzen diren eraikinak edo eraikin-zatiak, baldin eta urte osoan erabiliz gero gastatuko luketen energiaren % 25 baino gutxiagoko energia-kontsumoa izango dutela aurreikusten bada, jabearen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez. 	
4/2019 Legea, art.	20. artikulua	

2.2.6 jarduketa	Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak eta bizikletak erabiltzeko eta aparkatzeko lekuak jartzeko betebeharra sartzea eraikin berriak eraikitzeko lizitazio-prozesuetan	
Azalpena		
<ul style="list-style-type: none"> – Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak jartzeko betebeharra sartzea eraikin berriak eraikitzeko lizitazio-prozesuetan – Bizikletak erabiltzeko eta aparkatzeko lekuak jartzeko betebeharra sartzea eraikin berriak eraikitzeko lizitazio-prozesuetan 		
Arlo arduraduna	Arlo laguntzailea	
<ul style="list-style-type: none"> – Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua 	<ul style="list-style-type: none"> – Kontratazio Zerbitzua – Jasangarritasun Energetikorako Batzordea 	
Gauzatzeko aurrez ikusitako data		
Errepikaria (lizitazio-prozesu bakoitzean)	Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak jartzeko betebeharra sartzea eraikin berriak eraikitzeko lizitazio-prozesuetan	
	Bizikletak erabiltzeko eta aparkatzeko lekuak jartzeko betebeharra sartzea eraikin berriak eraikitzeko lizitazio-prozesuetan	
Barneko jarduketa/ kanpoan egin beharrekoa	Barneko jarduketa	
Baliabide ekonomikoak	0 €	
Adierazleak	–	
Oharrak	<ul style="list-style-type: none"> – Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzuak adierazi du oraindik ez duela erreferentzia argirik, ezta azpiegitura nahikorik ere, ratio hau definitu ahal izateko. Horrenbestez, ekintza hau garatu ahal izateko, aintzat hartu behar da ibilgailu elektrikoak merkatuak duen bilakaera, baita azpiegitura etengabe handitzen dela ere. – Bestalde, nabarmendu behar da energia elektriko hornitzeko 2020-2021erako esparru-akordioan aurrez ikusten dela enpresa adjudikaziodunak plan bat egin behar duela jada eraikita dauden BFaren titulartasuneko eraikinetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak jartzeko. Plan hori egiteko ezarritako epea 2020 urtarrila-martxoa da. 	
4/2019 Legea, art.	21. artikulua	

2.2.7 jarduketa	Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinetan energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak jartzeko zerbitzuak kontratatzeko lizitazioa	
Azalpena		
<ul style="list-style-type: none"> – Energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak jartzeko zerbitzuak kontratatzeko lizitazioa, helburu hau lortzeko: 2030erako, Bizkaiko Foru Aldundiak bere kontsumoaren % 32 zuzkitzeko behar beste instalazio izatea bere eraikin guztietan. Instalazio horietan sartzen dira ustiapen termikoko sistemak nahiz elektrizitatea sortzekoak 		
Arlo arduraduna		Arlo laguntzailea
<ul style="list-style-type: none"> – Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua 		<ul style="list-style-type: none"> – Jasangarritasun Energetikorako Batzordea
Gauzatzeko aurrez ikusitako data		
2021-2030 (Jasangarritasun Energetikorako Batzordeak zehaztu behar du)	Energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak jartzeko zerbitzuak kontratatzeko lizitazioa	
Barneko jarduketa/ kanpoan egin beharrekoa	Kanpoan egin beharrekoa	
Baliabide ekonomikoak	Jarduera honen aurrekontua Jasangarritasun Energetikorako Batzordeak aukeratzen dituen energia berriztagarriez baliatzeko instalazioen araberakoa izango da.	
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> – Energia berriztagarrien instalazioek hornitutako kontsumoaren ehunekoa 	
Oharrak	<p>Jasangarritasun Energetikorako Batzordeak alderdi hauei buruzko ildo bateratuak ezarri beharko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> – «Energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak» kontzeptuaren esanahia – Energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak jartzeko egoeran dauden Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko eraikinen identifikazioa – Energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak jartzeko zerbitzuak kontratatzeko lizitazio-prozesuen epeak 	
4/2019 Legea, art.	17. artikulua	

2.3 Kontratazio Zerbitzua

2.3.1 jarduketa	Bizkaiko Foru Aldundiaren lizitazioetan energia berriztagarriak balioesteko eta sustatzeko apartatuak sartzea	
Azalpena		
<ul style="list-style-type: none"> – Energia berriztagarriak balioesteko eta sustatzeko apartatuak sartzea, helburu hauek lortzeko: <ul style="list-style-type: none"> a) Joan-etorrien arrazionalizazioaren bitartez baliabide fosilen murrizketak bultzatzea b) Kontratua gauzatzeko makinak edo ibilgailuak erabili behar badira, haien efizientzia altua edo kontsumo baxua hobestea, bai eta ordezeko erregaiak edo energia-iturriak dituztenak ere c) Gas kutsatzaileen isuriak eta zarata murriztea, isurtze eta soinu maila baxuko makineria eta ibilgailuak erosiz edo moldatuz. 		
Arlo arduraduna	Arlo laguntzailea	
– Kontratazio Zerbitzua	– Jasangarritasun Energetikorako Batzordea	
Gauzatzeko aurrez ikusitako data		
Errepikaria (lizitazio-prozesu bakoitzean)	Bizkaiko Foru Aldundiak emandako, adjudikatutako eta sinatutako kontratuetan, energia berriztagarriak balioesteko eta sustatzeko apartatuak sartu direla aztertzea	
Barneko jarduketa/ kanpoan egin beharrekoa	Barneko jarduketa	
Baliabide ekonomikoak	0 €	
Adierazleak	– Energia berriztagarriak balioesteko eta sustatzeko apartatuak dituzten lizitazioen kopurua	
